

## Immigrazioa eta gizarte zerbitzuak: Etorkinentzako helmuga ala hasiera?

(Immigration and social services: immigrants' first or final step?)

MORENO MÁRQUEZ, Gorka  
IKUSPEGI – Immigrazioaren Euskal Behatokia. Mazarredo  
Etorbidea 39, 4 C. 48009 Bilbo  
gorka.moreno@ehu.es

---

Lan honetan immigrazioa eta gizarte zerbitzuei loturiko hainbat aspektu landuko dira. Horrela bada, hasierako sarrera bat egin ostean, azken urteetan eman diren migrazio fluxuen ezaugarri nagusienak alpatuko dira. Bigarrenik, eta gizarte bazterkeria eta gizarte integrazioa abiapuntutzat harturik, gizarte zerbitzuen definizioa eta funtzioak aztertuko dira, laburki bada ere. Hirugarrenik, etorkinen gizarte zerbitzuen erabileraren inguruko azterketa plazaratuko da, horretarako datu estatistiko ezberdinak landuko dira lan honen hipotesi nagusia frogatzeko: nahiz eta bertako iritzi publikoaren zati batek uste etorkinek gizarte zerbitzuen gehiegizko erabilpena egiten dutela, datuek esaten dutena kontutan hartuta gizarte zerbitzuen erabilpen hau, gehien bat hasierako momentu batean egiten dute, migrazio prozesuaren lehenengo faseetan. Baina, prozesu hau aurrera egin ahala, erabilpen hau gutxitu egiten da eta gizarteratzea gehien bat enpleguaren bidez ematen da. Beste era batera esanda, gizarte zerbitzuek askotan gizarteratzeko trapolin baten moduan funtzionatzen dute etorkinentzat eta ez gizarte-babeseko azkeneko sare bezala. Azken hau ezberdintasun nabaria izanik bertako eta atzerriar populazioaren artean.

Giltza-Hitzak: Immigrazioa. Gizarte zerbitzuak. Gizarte-bazterketa. Integrazioa.

En este trabajo se analizan diferentes aspectos relacionados con la inmigración y los servicios sociales. Así, tras una breve introducción que analiza las principales características de los flujos migratorios en estos últimos años, se parte del concepto de exclusión e integración social para definir el cometido de los servicios sociales. Asimismo, se analiza la utilización que de los servicios sociales hacen las personas inmigrantes de forma que, frente a algunos juicios de valor existentes en la sociedad autóctona, se observa que los inmigrantes usan los servicios sociales sobre todo en el inicio del proceso migratorio, y disminuye la utilización según avanza dicho proceso. Dicho en otras palabras, el empleo de los servicios sociales por parte de los inmigrantes funciona como un [*primer*] *trampolin de inserción* dentro de un proceso ascendente, no como una *última red de protección* como en el caso de la población autóctona.

Palabras Clave: Inmigración. Servicios sociales. Exclusión social. Integración.

Dans ce travail on analyse différents aspects liés à l'immigration et aux services sociaux. Ainsi, après une brève introduction qui analyse les principales caractéristiques des flux migratoires de ces dernières années, on part du concept d'exclusion et d'intégration sociale pour définir l'objectif des services sociaux. On analyse également l'utilisation que les immigrants font des services sociaux et on observe que, contrairement à certains jugements de valeur existant dans la société autochtone, on observe que les immigrants utilisent les services sociaux surtout au début du processus migratoire, et diminuent l'utilisation au fur et à mesure que ce processus avance. En d'autres mots, l'utilisation des services sociaux de la part des immigrants fonctionne comme un [*premier*] *tremplin d'insertion* dans un processus ascendant, et non comme un *dernier filet de protection* comme dans le cas de la population autochtone.

Mots Clés: Immigration. Services sociaux. Exclusion sociale. Intégration.

## 1. SARRERA

Fluxu migratzaileen<sup>1</sup> azterketak garrantzi handia hartu du azken urte hauetan hainbat diziplina zientifiko zein akademikoetan. Pentsatu daitekeenez, gizarte zientziak ez dira zentzu honetan salbuespena eta fenomeno honen hazkundera dela eta, gero eta gehiago dira immigrazioaren inguruan egiten diren azterketak. Hazkunde hau hein handi batean ezustekoa izan da, honek doitze arazoak sortu ditu etorkinentzat zuzentzen diren hainbat neurrietan. Horrela bada, hauetako asko gaur egungo errealitatea baino atzerago gelditu direla esan dezakegu ere.

### 1. Taula. Estatuan eta EAEn (probintziak) erroldatuta dagoen populazioaren bilakaera. 1998-2008

		1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Espainia	GUZTIRA	39.852.651	40.202.160	40.499.791	41.116.842	41.837.894	42.717.064	43.197.684	44.108.530	44.708.964	45.200.737	46.063.511
	Bertakoak	39.215.566	39.453.206	39.575.912	39.746.185	39.859.948	40.052.896	40.163.358	40.377.920	40.564.798	40.681.183	40.842.934
	Atzerritarrak	637.085	748.954	923.879	1.370.657	1.977.946	2.664.168	3.034.326	3.730.610	4.144.166	4.519.554	5.220.577
	Atzerritarren %	1,6	1,9	2,3	3,3	4,7	6,2	7,0	8,5	9,3	10,0	11,3
EAE	GUZTIRA	2.098.628	2.100.441	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.155.546
	Bertakoak	2.083.430	2.083.648	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.336	2.038.896
	Atzerritarrak	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650
	Atzerritarren %	0,7	0,8	1,0	1,3	1,8	2,3	2,8	3,4	4,0	4,6	5,4
Araba	GUZTIRA	284.595	285.748	286.497	288.793	291.860	294.360	295.905	299.957	301.926	305.459	309.412
	Bertakoak	282.135	282.947	282.679	283.331	283.829	283.915	283.847	284.816	285.069	286.067	286.678
	Atzerritarrak	2.460	2.801	3.818	5.462	11.716	10.445	12.058	15.141	16.857	19.392	22.734
	Atzerritarren %	0,9	1,0	1,3	1,9	1,7	3,6	4,1	5,1	5,6	6,4	7,3
Gipuzkoa	GUZTIRA	676.439	677.275	679.370	680.069	682.977	684.416	686.513	688.708	691.895	694.944	700.392
	Bertakoak	671.138	670.916	671.467	671.213	671.261	669.538	668.281	667.172	666.605	665.904	664.606
	Atzerritarrak	5.301	6.359	7.903	8.856	11.716	14.878	18.232	21.536	25.290	29.040	35.786
	Atzerritarren %	0,8	0,9	1,2	1,3	1,7	2,2	2,7	3,1	3,7	4,3	5,1
Bizkaia	GUZTIRA	1.137.594	1.137.418	1.132.729	1.132.616	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.136.181	1.139.863	1.141.457	1.145.742
	Bertakoak	1.130.157	1.129.785	1.123.310	1.119.496	1.114.783	1.109.520	1.103.985	1.099.964	1.096.468	1.091.365	1.087.612
	Atzerritarrak	7.437	7.633	9.419	13.120	18.661	23.908	28.876	36.217	43.395	50.092	58.130
	Atzerritarren %	0,7	0,7	0,8	1,2	1,7	2,1	2,6	3,3	3,8	4,4	5,1

Iturria: EInko datuak eta norberak landua.

Aipatutako immigrazioaren hazkundera 1. taula honetan ikusi daitezkeen datuetan baieztatuta daiteke. Estatuaren kasuan, esaterako, 1998. urtean 637.085 pertsona atzerritar zeuden bitartean –populazio osoaren %1,6a-, 2008an datu hau 5.220.577-koa zen %11,3-. Beraz, hamar urteko epean lau millioi t´erdi atzerritar gehiago dau-

1. Artikulu honetan immigrazioari buruz hitz egiten denean populazio atzerritarrari egiten zaio erreferentzia. Hortaz, azken urteetan emandako migratzaileen fluxuak dira aztertuko direnak. Populazio atzerritar guztia aintzat hartzen denez bertan egiten den azterketa Europar Batasuneko zein Europar Batasuneko kanpoko populazioari buruzkoa da. Era berean jatorri atzerritarra baina espainiar nazionalitatea bereganatu duten pertsonen buruzko informaziorik ez da aurkezten artikulu honetan.

de, 4.583.492 zehazki. Beste era batera esanda, populazio atzerritarren kopurua Estatuan zortzi aldiz biderkatu da azken hamar urte hauetan.

Estatuarekin harremanetan jarriz esan dezakegu Euskal Autonomi Erkidegoa Kantauriar isurialdeko erkidegoen inmigrazio eredia azaltzen duela. Hau da, atzerritarren ehunekoak nahiko txikia beste erkidego batzuekin konparatuz, gehien bat eraikuntza, nekazaritza edota turismoa bezalako sektore ekonomikoen ahuleziarengatik.

EAEren kasuan, hazkunde hau oso nabaria izanik ere, Estatuan eman dena baino txikiagoa izan da, bai zifra absolutu zein erlatiboak kontutan harturik. Horrela bada, atzerritarren portzentajea %0,7tik %5,4ra pasa da 1998. urtetik 2008. urtera, Estatuan baino ia sei puntu gutxiago -%5,9-. Lurralde historikoetan arreta jarririk, Bizkaia zein Gipuzkoako EAEn ematen den antzeko dinamika jarraitzen dute. Arabako kasuari dagokionez, hainbat ezberdintasun azaltzen ditu, gehien bat 2001. urtetik aurrera, atzerritarren portzentajea, esaterako, EAEko portzentajetik gora kokatzen da %7,3 batekin eta baita Bizkaia eta Gipuzkoaren gainetik -%5,1-.

## 2. Taula. Estatuan eta EAEn dauden pertsona atzerritarren bilakaera eta hauen urteko hazkundera ehunekoetan. 1998-2008

	Espainia		EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	N	Hazk.	N	Hazk.	N	Hazk.	N	Hazk.	N	Hazk.
1998	637.085		15.198		2.460		5.301		7.437	
1999	748.954	17,6	16.793	10,5	2.801	13,9	6.359	20,0	7.633	2,6
2000	923.879	23,4	21.140	25,9	3.818	36,3	7.903	24,3	9.419	23,4
2001	1.370.657	48,4	27.438	29,8	5.462	43,1	8.856	12,1	13.120	39,3
2002	1.977.946	44,3	38.408	40,0	8.031	47,0	11.716	32,3	18.661	42,2
2003	2.664.168	34,7	49.231	28,2	10.445	30,1	14.878	27,0	23.908	28,1
2004	3.034.326	13,9	59.166	20,2	12.058	15,4	18.232	22,5	28.876	20,8
2005	3.730.610	22,9	72.894	23,2	15.141	25,6	21.536	18,1	36.217	25,4
2006	4.144.166	11,1	85.542	17,4	16.857	11,3	25.290	17,4	43.395	19,8
2007	4.519.554	9,1	98.524	15,2	19.392	15,0	29.040	14,8	50.092	15,4
2008	5.220.577	15,5	116.650	18,4	22.734	17,2	35.786	23,2	58.130	16,0
1998-2008	4.583.492	819,4	101452	767,5	20.274	924,1	30.485	675,1	50.693	781,6

Iturria: EINKo datuak eta norberak landua.

Bigarren taula honetan jada lehenengoan aipatzen diren hainbat datu osatu egiten dira, bertan Estatuan eta EAEko populazio atzerritarren bilakaera azaltzen zaigu, urtero eman den hazkundera ehunekoetan agertzen delarik ere. Zifra ezberdinak ikusirik, Araba da azken hamar urte hauetan hazkunde erlatiborik handiena jasan duena -%924-. Honen atzetik Estatuko zifrak kokatuko lirateke -%819- eta bi hauekarik zertxobait urrunduta Bizkaiko -%781- eta Gipuzkoako -%675- hazkundeak topa ditzazkegu. Laburbilduz, argi gelditzen da populazio atzerritarren hazkundera handia eta

azkarra izan dela azken urteetan. EAEn kasuan, adibidez, populazio atzerritarra 7,5 aldiz baino gehiagotik biderkatu egin da.

Urte bakoitzean emandako hazkundeak kontutan harturik, Estatu mailan hazkunde handienak 2005. urterarte ematen dira gehien bat, urte honetatik aurrera portzentaje honen zifra jeitsi egiten delarik eta %20aren azpitik kokatzen delarik, aurreko urte guztietan honen gainetik zegoelarik. Are gehiago, 2002. urtean, hazkundea %44koa izan zen. Beste era batera esanda, 2001. urtetik 2002. urtera populazio atzerritarren hazkundea %50etik gertu kokatu zen.

EAEn kasuan, lehen urteetan ematen diren hazkundeak ez dira hain handiak eta Araba alde batera utzita, portzentaje hauek Estatu mailakoak baino baxuagoak dira beti 2005. urterarte. Urte horretatik aurrera, aldiz, eta tartea oso handia ez bada ere, EAeko portzentajeak Estatu mailakoak baino altuagoak izango dira. Honek, era argi batean EAeko fluxu migratzaileak Estatu mailakoak baino berantiaragoak eta gradualagoak direla adieraztu du. Probintziak, hazkunde handi eta goiztiarrenak Araban ematen dira, honen atzetik Bizkaia eta portzentaje txikiak azaltzen dituena Gipuzkoa da. Dena den, azken hau 2008. urtean %23ko hazkundea izan du, Araba %17- edo Bizkaiarenak %16- baino handiagoak.

Datu guzti hauek lehenengo pasartean aipatutakoa baino ez dute baieztatzen. Immigrazioa indartsu agertu zaigu gure testuinguru demografikoan, gehien bat Estatuari dagokionez eta ez du ematen epe laburrera dinamika hau gutxitu egingo denik, nahiz eta krisiaren eragina oraindik zehazteke egon. Zentzu honetan, fenomeno hau hurrengo hamarkadetan gurekin izango dugula ematen du. Eszenatoki berri honek, halaber, gure gizarte errealitatearen hainbat esparruetan eragiten du. Pentsatu daitekeenez, Ongizate Estatua, gizarte politikak edota gizarte zerbitzuak ez dira salbuespena eta hauen eta immigrazioaren inguruko loturari buruzko gogoeta eta hausnarketak bultzatu beharko dira, honen bidez behar berrietara egokitzeko eta baliabide egokiak eskaintzeko. Era berean, eta aurrekoari hestuki lotuta, ezin dugu ahaztu gero eta etorkin gehiago direla gizarte zerbitzu edota politiketara jotzen dituztenak (Montagud eta Torres, 2002). Gainera, eta ikuspegik egindako inkesta baten datuak erabiliz, guzti hau ulertzeko baliogarria zaigu kontutan hartzea etorkinen integrazio gustukoena izaera bikoitza duela: esparru publikorako harrera gizartea nahi duten bitartean, esparru pribaturako nahiago dute euren jatorrizko ohitura kulturekin jarraitzea. Gizarte politikak edota zerbitzuak lehenengo esparruarekin koinziditzen dute peto-peto.

Testuinguru honetan, eta imajinatu dezakegunez, gero eta gehiago dira etorkinen beharra asetzeko zuzentzen diren programa eta gizarte zerbitzu ezberdinak eta baita talde honen pisua izaera orokorrekoetan ere. Garapen hau lurralde txirotuetatik etortzeko etorkinen kopuru handia dagoen autonomi erkidegoetan ematen ari da nagusiki. Era berean, ezin aipatu gabe utzi hirugarren sektorearen eta erakunde ezberdinek duten garrantzia programa hauen kudeaketa eta egikaritzan. Guzti hau aipatu ostean, lan honetan arlo hauei loturik agertzen diren hainbat aspektu aztertuko dira, etorkinen integrazio eta gizarteratzean gizarte zerbitzuek joko dezaketen paperari lehentasuna eta arreta berezia eskainiko zaiolarik.

## 2. GIZARTE ZERBITZUAK, INTEGRAZIOA ETA GIZARATERATZEA<sup>2</sup>

Azterketa honen helburu nagusia ez da gizarte zerbitzuen inguruko ezaugarri edo definizioen inguruko ikerketan sakontzea. Dena den, gizarte zerbitzuen inguruko zertzelada batzuk ematea guztiz egokia iruditzen zaigu bertan landuko diren gaiak hobeto ulertu eta testuingurutzeko.

Ongizate estatuaren oinarrietako bat, besteak beste, honek gizarte eta talde ezberdinen oinarriko gizarte beharrak asetzeko ardua bat duela da. Honetarako, gizarte politika eta programa ezberdinak martxan jartzen dira. Marko kontzeptual honetan kokatzen dira, hain zuzen ere, gizarte zerbitzuak. Azken honek eta hezkuntza, osasuna edota diru-sarreraren bermaketa bezalako alorrek osatzen dutelarik gizarte politiken muina.

Ongizate Estatuaren *laugarren hanka* bezala ezagutzen denarekin zentratuz, gizarte zerbitzuekin alegia, hainbat dira honen inguruko definizio ezberdinak, askotan nahiko zehatzgabeak izaten direlarik. Hori dela eta, lan honetarako, Demetrio Casado egindakoa hartzen da kontutan, bertan nahiko era argian agertzen baitira gizarte zerbitzuen ezaugarri nagusienak. Horrela bada,

[...] gizarte zerbitzuz gabeziak osatzeko eta norbanakoaren autonomia (edota dependentzia) eta komunitate zein gizarte integrazioa (edota bazterkeria) garatzeko harremanean eta gertutasunean oinarritutako laguntza eta babesa eskaintzen duten prestazio tekniko eta beste hainbat iharduera dira” (Casado eta beste batzuk, 2005: 11).

Definizio honetan gizarte zerbitzuetako definizioetan agertzen zaizkigun hainbat elementu azpimarratu ditzazkegu, hala nola, autonomia eta integrazioa. Era honetan, eta ikuspegi orokor batetik abiatuta, gizarte zerbitzuak egituratzen dituzten ezaugarri nagusienak bi ardatz dikotomikoen arabera definitu ditzazkegu: alde batetik bazterkeria-integrazioa osatzen dutena; eta bestetik, menpekotasuna-autonomia osaturikoa (Laparra eta Aguilar, 1997: 91). Beste era batera esanda, gizarte zerbitzuen helburua pertsonen eta taldeen integrazioa eta autonomia sustatzea da, hauek jasaten duten gizarte bazterkeria edota menpekotasuna gutxitzea edo mugatzea ere helburua izanik.

Eskema honetatik abiaturik, gizarte zerbitzuen zeregina gizarte bazterkeriari aurre egitea eta integrazioa areagotzea dira eta horretarako, beste hainbat gizarte politikekin elkarlanean gizarte bazterkerian eragiten duten hiru dimentsioekin batera eragitzen dute gizarte zerbitzuek: arlo ekonomikoa, arlo politikoa eta harremanen arloa.

1. Lehenengo dimentsioan, arlo ekonomikoan, eta Laparra eta beste batzuen (2007) ekarpenak jarraituz, gizarte bazterkeria alde batetik ekoizpenean ez parte-hartzeagatik, hau da lan merkatuan parte hartu ez izateagatik edota era desegokian parte-hartzeagatik emango litzateke; eta bestetik kontsumoan parte-hartze egokia ez izateagatik, azken kasu honetan baliabideen eskasia azpimarratu beharko genuke.

---

2. Integrazioa eta gizarteratzea askotan sinonimotzat hartzen dira, dena den eragileen arabera esanahi ezberdina ematen zaie ere bi kontzeptu hauei. Kasu honetan integrazioa nolabaiteko helmuga hipotetikotzat jotzen dugu eta gizarteratzea integrazioarako bidean egiten den prozesua.

2. Dimentsio politikoan hiritartasun politikoari loturiko aspektuak izango genituzke. Arlo politikoari dagokionez, hauteskundeetan parte-hartzeko aukera –era pasiboan zein aktiboan-. Eta gizarte arloari lotuta, gizarte politiketaz disfrutatzeko trabak izango genituzke.
3. Azkenik, hirugarren arloan, gizarte harremanena, bi atal berezi beharko genituzke: harreman hauen gabezia edota harreman hauek pertsonarengan ondorio ezkorrek suposatzea.

### 3. Taula. Gizarte bazterkeriaren dimentsioak

<b>1. DIMENTSION EKONOMIKOA</b>	1.1. Ekoizpenean parte hartzea (lan merkatua).
	1.2. Kontsumoan parte hartzea (baliabideen gabezia).
<b>2. DIMENTSION POLITIKOA</b>	2.1. Hiritartasun politikoa (parte hartze politikoa).
	2.2. Hiritartasun soziala (gizarte zerbitzuen onuraduna).
<b>3. HARREMANEN DIMENTSIONA</b>	3.1. Harremanen eza (gizarte isolamendua).
	3.2. Harreman ezkorrek (gizarte gatazka).

Iturria: Laparra eta beste batzuk (2007) eta norberak landua.

Hiru ardatz hauek gizarte-bazterkeriaren dimentsio aniztasuna azpimarratzen dute (Berghman, 1995; Subirats eta beste batzuk, 2004; Daly eta Silver, 2008; Sirovatka eta Mares, 2008). Era berean ezin dugu alde batera utzi gerturapen honek nolabaiteko arreta jartzen duela aspektu sozio-ekonomikoetan. Beste hitzekin esanda, integrazioak beste hainbat elementu ere izan ditzazke, kultur arloa edota hizkuntzen bereganatzea. Gure kasuan integrazio sozio-ekonomikora mugatuko gara, honek dakarren alde on zein gabeziekin.

### 3. IMMIGRAZIOA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

Atal honetan zehar aurrekoan aipatutako hiru dimentsioren konbinaketaren arabera etorkinen gizarte zerbitzuenganako sarrera emango dela planteatuko da. Honetarako, lehenengo azpi-atal batean dimentsio hauek etorkinengan sortarazten dituzten ondorioak aztertuko dira. Era berean, populazio atzerritarra eta bertakoaren artean zentzu honetan antzeman daitezkeen ezberdintasunak ere landuko dira hurrengo azpi-atal batean.

#### 3.1. Etorkinak eta gizarte integrazioa

Esan bezala, atal honetan gizarte bazterkeria osatzen duten hiru dimentsioak ikerituko ditugu. Lehenengoari dagokionez, arlo ekonomikoa, etorkinentzat lan-merkatua oinarritzko elementua da, bertako populazioarentzat baino garrantzitsuagoa oraindik. Hau ulertzeko ezin alde batera utzi emigratzeko arrazoirik garrantzitsuena gehienetan lan merkatuan parte hartzea izaten dela. Ikuspegik atzeritarrei egindako inkestaren arabera, EAEn bizi diren etorkinen %43,8a lan merkatuari loturiko arrazoiengatik emigratu zuen. Eta arrazoi hauei, arrazoi ekonomikoak gehitzen badizkiogu –zeharka

bada ere, lan merkatuari ere loturikoak-, %66,7a bere jatorrizko lurraldetik atera da faktore ekonomiko edo laboralengatik. Honen inguruan ere askotan arrazoi ekonomikoetan oinarritutako emigrazio prozesu baten arrakastaren ostean, arrazoi hau berinterpretatu egiten da eta beste arrazoi batzuen alde egiten da, errealitate berrien ezagutza edota garapen pertsonala bezalako arrazoiaren alde zehazki, nahiz eta benetan eta hasiera batean arrazoi ekonomikoak egon. Aurreko lerroan aipatutakoa eta beste hainbat faktoreek ere, argi uzten dute etorkinentzat dimentsio honek duen garrantzia, are gehiago, etorkin gehientzat sarrera ekonomikoak bermatzeko bide bakarrenetarikoa lan merkatua izaten dela kontutan harturik.

Populazio Aktiboaren Inkestako datuak ideia honetan sakondu baino ez dute egiten. 2008. urteko hirugarren hiruhilabetekoaren datuak aipatuz, bertako populazioaren iharduera-tasa %57,67koa zen, atzeritarrena %76,36koa izanik, beraz 18 puntu baino gehiagoko aldea dago atzeritarren alde. Honek era garbi batean erakusten digu populazio atzeritarren artean pentsiodun oso gutxi daudela, gehienak gazteak baitira. Era berean, atzeritarrek iharduera eta okupazio-tasa handiagoa dute eta beraz, menpekotasun-tasa txikiagoa.

Bigarren dimentsioa aztertuta, politikoa, atzeritarren parte hartze politikoa mugatuta dago, oraingoz Europar Batasuneko kideak edota erreziprozitate akordioa dutenak parte-hartu baitezakete soilik eta gainera bakarrik udal edota europar hauteskundeetan. Azken garai hauetan behin baino gehiagotan agertu egin zaizkigu komunikabide ezberdinetan atzeritar guztiak udal hauteskundeetan parte hartzeko aukeraren inguruko eztabaida. Dena den, ikusi beharko da gai honek aurrera egiten duen ala prentsa izenburua izatera baino ez den ailegatzen. Baina hiritartasun mailan ematen den mugapenik handiena gizarteak subiranotasunean oinarrituta bere biztanleekin egiten duena da, hiritarrak eta pertsonak bereiztuz hain zuzen ere. Honen bidez, populazio atzeritarra hiritartasun eskubideetatik at gelditzen da. Gainera zatiketa hau maila juridikotik moralera ere igarotzen da eta askotan elkartasuna bakarrik hiritarrantzat izan behar dela pentsatzen dute bertako askok. Interpretazio hau eginda, gero zaila suertatzen da atzeritarrei hiritarrek dituzten eskubide eta zerbitzu guztiak eskeintzea.

Esandako hau oso era garbian azaltzen zaigu gizarte eskubideei dagokionez. Hauen kasuan, nahiz eta egoera anitz eman, Estatuan oro har soilik egoitza-baimena dutenak izaten dute aukera prestazio eta gizarte zerbitzu ezberdinak jaso ahal izateko. Honen bidez, erroldaturik baina egoitza-baimenik ez duten atzeritarren hiritartasun sozialetik at gelditzen dira.

EAEren kasuan, hiritartasun soziala bereganatu ahal izateko, adibidez, diru-sarrerak bermatzeko politiketan, erroldatuta egon behar da pertsona gutxienez urte batez eskaera egin ahal izateko, beraz egoitza-baimena ez da faktore baztertzaila. 2008. urteko abenduan onartutako Gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko legeak ez du aldaketarik sartu elementu honetan. Gizarte zerbitzuen lege berriari dagokionez ere eraldaketa handiegirik ez dira antzeman. Hala ere, argi gelditzen da populazio atzeritarrek duen lege-egoeragatik bertakoak baino arazo gehiago izaten dituztela gizarte zerbitzuetaz gozatu ahal izateko. Gainera, ezin da ahaztu behar askotan egoitza-baimenik ez izateak oztopo bat izaten dela zenbait etorkinentzako, beldurra dela eta dagozkien gizarte zerbitzuak ez baitituzte eskatzen, nahiz eta eskubidea izan (EAPN, 2008, Levoy, 2008). Are gehiago, gizarte zerbitzuen babes juridikoa ez da osasuna

edo hezkuntza bezalako arloek dituztenak, azken hauek eskubide unibertsaltzat jotzen direlarik eta beraz, oztopo gutxiago izan beharrekoak pentsatzen delarik. Estatu mailan, adibidez, eta gutxieneko diru-sarreraren neurrietan zentratuz, autonomi erkidego gehienek eskubide hau soilik egoitza-baimena dutenentzako aurreikusten dute. Arau honen muturretan kokatuko lirateke alde batetik EAE, Nafarroa edota Balearrak, bertan erroldatuta dauden atzerritarrek ere eskubidea baitute; eta bestetik, Andaluzia, non atzerritar komunitarioak ez direnak programa honetan ezin duten parte-hartu (Laparra, 2008: 25).

Hirugarren dimentsiora pasata, prozesu migratzaile gehienetan sare sozial zein familiarren garrantzia oso handia izaten da, etapa guztietan, honen antolaketatik hasiz eta harrera gizartera ailegatu arte. Etorkin bat leku berrian bizitzen jartzen den momentutik sare hauen eragina oso handia izaten da, hurrengo datuan ondo ikusi daitekeen bezala. Berriz ere Ikuspegik atzerritarrei egindako inkestaren arabera, EAEko populazio atzerritarren %59rentzat bere lagun gehiengoa bere nazionalitatekoak dira.

Aurreko pasarteetan agertzen dena laburbilduz, esan beharra dago etorkinentzat lehenengo eta hirugarren elementuak direla garrantzitsuenak harrera gizartera ahal den eta integrazio egokiena gauzatu ahal izateko. Bigarren dimentsioaren kasuan, hiritartasun politiko eta sozialarena, muga gehiago agertzen dira, gehien bat atzerritartasun arloan dauden lege oztopoengatik. Atzerritarrek integrazio osoa lortzeko *handicap* nabaria dutela esan dezakegu, gehien bat euren gizarteratze prozesua integrazioaren bi zutabeetan oinarritu behar delako eta ez hirutan, bertako populazioaren gehienarentzat bezala.

Izan ere, egoera administratiboak zein hiritartasun status-a lortzeko dauden oztopoek baldintzatzen dute hein handi batean talde honen gizarteratzea eta baita ere aurreko bi dimentsioen indarra eta potentzialitateak. Zentzu honetan, *egonkortasun-kontinuum* bati buruz ere hitz egin dezakegu hauen egoera administratiboa irizpide nagusitzat hartuz eta atzerritarren egonkortasuna neurtzeko. *Kontinuum* honen mutur batean, erroldaturik ez dauden atzerritarrak egongo lirateke, hauek gizarteratzeari buruzko adierazle ezkorragoak azaltzen dituzte, bai gizarte zein lan arloei dagokienez. *Kontinuum* honetan aurrera joan ahala, egoitza-baimena ez dutenak baina erroldatuta daudenak izango genituzke. Hirugarrenik, egoitza-baimena –mota ezberdinak– dituztenak egongo lirateke. Eta lehenengo muturraren kontrakoa, behin-betirako egoitza-baimena edota harrera gizartereko nazionalitatea dutenak egongo lirateke. Azken hauek dira, inkestaren datuekin jarraituz, gizarteratze adierazle hoberenak plazaratzen dituztenak, aurreko taldeak baino hobeagoak kasu guztietan.

Horrela bada, lan merkatuan parte hartzea eta enplegu bat lortzea alde batetik; eta harrerako momentuan sare familiar zein sozialek eskeintzen duten babesa eta laguntza bestetik izaten dira etorkin ailegatu berrien integrazioa eta gizarteratzea ahalbidetzeko bi ardatz nagusienak. Era berean, eta txanponaren beste aldea izanik, hauetako elementuren bat kale egiten duenean gizarte bazterkeria eta menpekotasuna pairatzeko aukerak areagotu egiten dira. Lan-merkatutik edota sare sozial ezberdinetatik at gelditzen diren etorkin hauentzat gizarte zerbitzuek integrazioarako neurri eta bide ezberdinak martxan jarri beharko lituzkete eta honi garrantzia eman beharko zaio epe motz zein ertainean. Argi dago, aipatu dugun eskema hau ez dela beti eta



guztientzako ematen, baina arazo gehien dituzten etorkinen taldeak aztertuzkero argi-  
ro agertzen zaigu azaldutako aspektu hauek kasu dezentetan agertzen zaizkigula.

### **3.2. Etorकिन baliabide eta gizarte zerbitzuen erabilera: gezurrak eta egia**

Honako atal honetan, eta gure ikerketa-objetua testuingurutu ondoren, immigrazioa eta gizarte zerbitzuen inguruko harreman eta aspektu ezberdinak landuko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin etorkinen inguruan egiten diren zenbait baieztapen aztertuko ditugu, hauen egiaztasunaren inguruko azterketa eginik. Beste hitzetan esanda, gizarte zerbitzu zein beste politiken inguruan immigrazioari loturik agertzen zaizkigun hainbat ideia hartu eta hauen inguruko gogoeta egingo da.

Baieztapen hauek aukeratzeko momentuan bertako populazioari buruz egiten diren iritzi-inkestak kontutan hartu ditugu, bertan gizarte zerbitzuei buruz egiten diren galderak eta hauen erantzunak aintzat hartu direlarik. Zehazki Estatu mailan zein gure erkidegoan egiten diren mota honetako inkesta garrantzitsuenak aztertu ditugu aukeraketa hau egiteko (Cea d'Ancona, 2007; Cea d'Ancona eta Vallés, 2008, 2009, 2010; Rinken eta Pérez Yruela, 2007; Rinken, Silva, Velasco eta Escobar, 2009; Rinken Escobar y Velasco, 2011; Ikuspegi, 2008, 2009, 2010).

#### **3.2.1. Gizarte zerbitzu gehienak etorkinen esku daude? Gehiengoa al dira gizarte zerbitzuetan?**


Iritzi publikoan askotan entzuten ohi da gizarte baliabide gehienak etorkinen eskue-  
tan gelditzen ari direla, hauen artean gizarte zerbitzuak ere (Ikuspegi, 2009; Ikuspegi  
2011). Honen inguruko datu estatisko gehiegirik ez dago eta askotan ere hutsuneak  
erakusten dituzte. Dena den, zenbait datu eskaini daitezke honen inguruan. Era be-  
rean gizarte zerbitzuen gaia erkidegoen eskumena denez nagusiki, Estatu mailako  
datuak eman arren erabiliko ditugun gehienak Euskal Autonomi Erkidegora zuzendua  
egongo dira.

Estatu mailan, 2006-2007. urtean gizarte zerbitzuen erabiltzaile guztien %6,98a  
pertsonek atzerritarrek ziren, urte honetako atzerritarren ehunekoa 8,8koa zenean  
(MTAS, 2007: 82). EAEn, gizarte zerbitzuen erabiltzaile atzerritarrek guztien %9,5a  
suposatzen zuten (Eusko Jaurlaritzak, 2007: 183). Azken urte hauetan portzentaje  
hauek igo egin direla ematen du, Estatu mailan zein erkidegoan.

Atal honetan sakontzeko asmoz, interesagarria izan daiteke ere gure gertuko tes-  
tuinguruan topatu ditzazkegun hainbat datu. Horrela, Eusko Jaurlaritzak etorkin ez ko-  
munitarioen inpaktu ekonomikoaren inguruan egindako txostenean (2008), adibidez,  
hezkuntzan, osasunean, etxebizitza, etorkinentzako arretan eta gizarte zerbitzuetan  
etorkinentzako egindako gastu publikoa aztertzen du.

Lehenengo arloari dagokionez, hezkuntza, etorkina den ikaslekoan gastatzen  
den ehunekoa etorkinek EAEn duten pisuaren oso antzekoa da. Osasunaren kasuan,  
hautetako gastua pisu hau baino baxuagoa da, bertako biztanleria baino askoz ere  
gazteagoa den adin-egitura dutelako. Etxebizitza alorrean, datu diferentzialak ez dau-  
denez, zaila da estimazio zehatz bat egitea, dena den, lan merkatuan *ekonomia izku-  
tuan* duten pisua handiagoa izanik, babes ofizialeko etxetara sartzeko arazo gehiago  
izan ditzaketela pentsa genezake, besteak beste, eta oztopo bat aipatzearen.

### 1. grafikoa. Bertako populazioa eta atzerritarren adin-egitura EAEn. 2007



Iturria: EInko datuak eta norberak landua.

Gizarte zerbitzuen atalean, guri gehien interesatzen zaiguna alegia, hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzuen pisua oso baxua da etorkinen barruan, oso gutxi baitira 65 urte baino gehiago dutenak. Aurreko grafikoa ikusi daitekeen moduan, lerro horiak direlarik populazio atzerritarra irudikatzen dituztenak, 60 urtetik gorako adin tartetean kolore horia ia desagertu egiten da eta populazio atzerritarra tarteko adin tartetean kokatzen da, gehien bat 20 eta 45 urte bitartean. Familia, haurtzaro edota gazteriarra zuzendutako gizarte zerbitzuetan etorkinen gastu portzentuala bertakoena baino handiagoa da, gehien bat bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrentzat dauden egoitza zerbitzuak direla eta.

Oinarrizko Errenta –OE- edota Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetan –GLL- etorkinen pisua bertakoena baino handiagoa da ere, lehen aipatutako txostenaren arabera -2004. urteko datuak-, atzerritarretan egindako gastua %23a zen lehenengoarentzat eta %26a bigarrenarentzat zen (Eusko Jaurlaritza, 2008: 102). *Estudio de las personas receptoras de Renta Básica* (2008) ikerketan ere bide honetan sakontzen da eta 2007. urtean OEren onuradunen %30a atzerritarrak zirela aipatzen da (Eusko Jaurlaritza, 2008b: 10).

Haatik, datu hauek ez dute inondik inora esan nahi etorkin gehienak gizarte prestazioetaz bizi direnik. Zentzu honetan, eta berriz ere Ikuspegik erabilitako datuak aipatuz, inkesta egin zen momentuan atzerritarren %6,6a zen OE jasotzen zuena, populazio osoan duten pisua baino zertxobait handiagoa, baina ehuneko nahiko baxuztat jo daitekeena ere. Datuari buelta emanez %92,6a da OE jasotzen ez zuena. Kontutan hartu behar den beste elementua nazionalitate guztiak OE ez dutela era berdinean eskatzen da. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzak egindako txostenera bueltatuz, onuradun atzerritarren artean ia %60a latinoamerikarra da. Honetatik distantzia handira magrebtarrak (%15,8), subsahariarrak (%9,7) eta Europa ekialdekoak (%8,4) kokatzen dira. Ikuspegiko inkestak eskaintzen dituen datuak antzekoak dira, baina inkesta ez denez OEn soilik zentratzen akaso lortutako emaitzak ez dira aurreko hauek bezain zehatzak.

#### 4. Taula. Oinarrizko Errentaren onuradunak jatorrizko lurralde-eremuaren arabera

	Eusko Jaurlaritzaren Inkesta		Ikuspegiko Inkesta	
	N	%	N	%
Magreb	87	15,8	38	18,4
Subsahara	53	9,7	25	12,1
Europa ekialdea	46	8,4	33	15,9
Latinoamerika	329	59,9	104	50,2
Beste batzuk	34	6,2	7	3,4
Guztira	549	100,0	207	100,0

Iturria: Estudio de las personas receptoras de Renta Básica eta Populazio atzerritarri Immigrazio Euskal Behatokiak egindako inkesta.

Etorkinen inpaktu ekonomikoaren txostenean aipatzen diren datuak berriz aipaturik, gizarte zerbitzuetan egiten den gastu guztiaren %8,3a etorkinentzat zuzentzen da (Eusko Jaurlaritza, 2008: 107), atzerritarrek EAEn duten pisua baino portzentaje handiagoa, baina zalantzan jartzen duena etorkin guztiak gizarte zerbitzuetaz bizi direla edota prestazio guztiak gelditzen direla. Are gehiago, gizarte arloan egindako gastu guztiaren %4,01 suposatzen dute atzerritarrek, euren pisua baino ehuneko txikiagoa.

Datu guzti hauekin hainbat ondorio atera genitzazke. Lehenik eta behin, atzerritarren pisua bertakoena baino handiagoa da soilik gizarte zerbitzuetako arlo jakin batzuetan. Gainera, ezin esan eremu zehatz hauek etorkinen *eskuetan* gelditu direnik. *Sasi-egi* hauekin jarraituz, datuek argi erakusten digute pertsona atzerritar guztiak ez direla prestazioetaz bizi. Aldiz, gehienak enplegu baten bidez lorturiko soldatarekin bizi dira. Seigarren taulan ikusi daitekeenez, eta 2007. urtean eman zen etorkinen hazkundera kontutan harturik gure estimazioa egiteko, 2008. urteko uztai-lean 126.000 atzerritar erroldatuta egongo lirarteke. Hauetarik, 105.840 lan egiteko adinean –guztien %84a 16 eta 64 urte bitartean kokatuko lirarteke-. Egoitza-baimena

duzenak 86.823 dira, erroldatuen ia %70 eta hauen ia 76.000 -75.805- 18 eta 64 urte bitartean legokete. Datu hauek, esan bezala, lan merkaturatze handia azaltzen dute alde batetik eta erregulazio tasa esanguratsua baita ere.

Estimazio honekin jarraituz, baina lan munduko datuetan zentratuz, azpimarragarria da egoitza baimena zuten 86.823 atzerritarretatik 54.063-k Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeudela, guztien %71a. Populazio Aktiboaren Inkestako datuak harturik, EAEn 84.672 atzerritar egongo lirakeke okupatuta 2008. urteko uztaillean. Datu baten eta bestearen arteko kenketa eginez, ekonomia izkutuan lan egiten dutenen kopurua 30.609koa dela pentsa genezake. Era berean, 12.701 -%12a- langabezian egongo zen eta atzerritarren populazio inaktiboa 8.467koa izango zen -%8a-. Datu guzti hauek kontutan harturik, lan egiteko adinean dagoen populazio atzerritarren %80 inguru lanean dagoela esan dezakegu ere. Beraz, datu guztiek argi erakusten digute hauen okupazio handia. Pentsa dezakegu, krisia dela eta estimazio hau eta bertan ematen diren hainbat zifra aldatu ahal daitezkeela gaur egun, dena den, tendentzia nahiko berdin mantentzen dela esatea ez da gehiegikeria ere.

**5. Taula. EAEn erroldatua, egoitza baimena eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden atzerritarrak eta populazio okupatua, inaktiboa eta langabezian daudenak. 2008. urteko uztaillean egindako estimazioa eta datuak**

	N	%
Erroldatuta*	126.000	
Erroldatuta 16-64 (%84)	105.840	
Egoitza Baimenak	86.823	0,69
Egoitza Baimenak 16-64	75.805	0,87
Afiliatuta Gizarte Segurantzaren	54.063	0,71
Enplegatutako populazioa PAI arabera	84.672	0,8
Langabezian dagoen populazioa PAI arabera	12.701	0,12
Populazio inaktiboa	8.467	0,08
Ekonomia izkutua (enplegatutako PAI - Afiliatuta)	30.609	0,29
* 2007. urteko hazkundearen araberrako estimazioa		

Iturria: EIN, MTIN, Gizarte Segurantzaren, PAI eta norberak landua.

**3.2.2. ¿Etorkinek asko eskatu eta gutxi ematen al dute?**

Gure artean entzuten den beste esaldietako baten arabera etorkinek ekonomikoki ekarpen txikia egiten dute Ongizate Estatua eta gizarte zerbitzuen mantenurako eta behintzat ematen dutena baino askoz gehiago eskatu eta lortzen dutela. Jada aurreko puntuan esandakoaren arabera, pentsaera honek hainbat ahultasun erakusten ditu. Baina, esku artean dauzkagun datuak aztertzen baditugu, ideia hau zalantzan jarri dezakegula azkar ikusiko dugu. Horrela, EAEn etorkinen inpaktu ekonomikoa- ren inguruko txostenean esaten denaren arabera, populazio atzerritarren ganako

gizarte gastua eta hauen ekarpen fiskala kontutan harturik, hauek bertakoek baino 1.021 euro gehiago ordaintzen dute urtero (Eusko Jaurilaritza, 2008: 120), gehien bat atzerritarrek Gizarte Segurantzaren egindako ekarpenak bertakoek baino handiagoak direlako.

Estatu mailako datuek ere ildo bera jarraitzen dute. 2006. urtean Presidentearen Bulego Ekonomikoak egindako ikerketaren arabera, Espainiako superabitaren %50a atzerritarrei esker zen (Oficina Económica del Presidente, 2006: 35), beraz hauen balantze fiskala positiboa da. Era berean, azken hamarkadeko Estatuko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen %30a etorkinek sortarazikoa izan da, azken urteotakoa %50a izanik (Oficina Económica del Presidente, 2006: 27). Txosten hau baino beranduago baina datu hauek kontutan harturik egindako beste lanetan alor honetan sakontzen da, horrela etorkinentzat egiten den gastu publikoa %5,4koa den bitartean hauek Estatuko diru-sarrera guztien %6,6a osatzen dute (Malgesini, 2008: 45).

Datu hauek hobeto ulertzeko ezin dira albo batera utzi osasuna edota hirugarren adineko gizarte zerbitzuetako ataletan atzerritarren pisua bertakoena baino askoz ere txikiagoa dela. Gizarte Segurantzaren kasuan ere antzeko dinamika da ematen dena, atzerritarrentzako pentsioetan egindako gastua oso txikia da eta euren ekarpenak, aldiz, bertakoak baino handiagoak, erlatiboki gutxienez. Hortaz, azpi atal honen izenburuan agertzen den ideia defendatzea zaila suertatzen da datuen errealitatea azterturik. Asko jota, atal jakin batzuetan bertakoek gastu erlatiboa baino handiagoa azaltzen dutela esan dezakegu, baina ez inondik inora, zifra orokorrak edo atal guztiak baturik. Presidentearen Bulego Ekonomikoak egindako txostenak zioen bezala, eta aurreko lerroetan esaten dena azpimarratuz,

[...] kontu publikoei dagokienez, etorkinen pisua positiboa da superabit publikoan, hortaz, ez da egia etorkinek ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela, gehien bat gure fiskalitatearen progresibotasuna dela eta. 2005. urterako, adibidez, 5.000 milioi euroko superabita –BPGaren 0,5a- eurei esker eman zen, administrazio publikoen superabitaren erdia zehazki. Hala ere, kontutan hartu behar da etorkin pentsiodun gutxi daudela oraingoz baina lanean daudenak pentsiorako eskubidea ari direla eskuratzen. Gaur egun, Gizarte Segurantzaren egindako etorkinen kotizazioak 8.000 milioioiak dira eta pentsioetan jasotzen dutena 400 milioi. Hortaz, datorren urteetan, pentsatzekoa da superabitaren sortarazten duten eragin positibo hau gutxitzen joango dela eta epe luzera begira kontrakoa ere izan daitekeela (2006: 32).

### 3.2.3. Gizarte zerbitzuek deia efektua sortarazten al dute etorkinengan?

Deia efektuarena ere sarritan entzuten ohi den ideia da gizarte zerbitzuak eta immigrazioari buruz hitz egiten denean. Honen inguruan arakatu duten ikerketen arabera, gizarte zerbitzuen edota gizarte prestazioen kalitatea eta kobertura ez dira izaten arrazoirik garrantzitsuena leku edo lurralde jakin batetara emigratzeko. Lan honen hasieran ikusi egin den bezala, EAEn behintzat, bi herenen arrazioak elkar loturik agertzen zaizkigu arlo ekonomiko edota laboralari eta azken bi hauek izaten dira erabakigarrienak etorkinen proiektu migratzaile ia guztietan. Horrela bada, eta Laparrak aipatzen duen bezala, benetazko deia efektua ez da izaten gizarte zerbitzuen baizik eta lan merkatuarena eta efektu hori igortzen duten sare sozialena (Laparra, 2003).

### 3.3. Etorkinen sarrera gizarte zerbitzuetan

Azaletik jada atal honen lehenengo puntuari aipatu den moduan, askotan etorkinentzako gizarte zerbitzuek berebiziko garrantzia hartzen dute heltzen diren lehenengo momentuetan eta proiektu migratzailearen hastapenetan (Rodríguez Cabrero, 2003). Are gehiago, arazoak –edonolakoak izanik ere- izaten badituzte lan merkaturatze ego-kia lortzeko –era erregulatuan izan ala ez- edota sare sozialik ez badituzte izaten hauen *lurreratzea* errazteko eta gizarte prozesuaren *aireratzea* hasteko. Testuinguru honetan, hain zuzen ere, dute garrantzia gizarte zerbitzuek, udal mailan kokatzen diren lehenengo mailakoak gehien bat. Gizarte zerbitzuen definizioan aipatuenez, hauen helburua gehien bat norbanako, talde edota komunitateek gizarteratzeko eta integratzeko dituzten gizarte arazoei eta beharrei aurre egitea da. Gizarte zerbitzuak horrela ulerturik, egoera *kritiko* hauek etorkinen kasuan ailegatzen diren momentuan ematen dira gehienetan.

Era honetan, hainbat etorkinentzat gizarte zerbitzuak euren gizarteratze prozesu-rako ateak dira, are gehiago lan merkaturan sartzeko arazoak edota gizarte sareen gabeziak baldin badituzte. Halaber, gainontzeko zerbitzu publiko eta gizarte politiken atea ere suertatzen dira sarritan gizarte zerbitzuak (Giménez, 2002: 24; Pérez Yruela eta Rinden, 2005: 173) eta arlo legala, errolda, hizkuntzaren irakaspena, osasun zaintza edota hezkuntzarako informazio eta aholkularitza guneak izaten dira ere (Pajares, 2005: 169).

Orain arte honen inguruan egin diren ikerketa bakanetan alor hau azpimarratzen da. Torres-ek zuzenduriko lanean, esaterako, gizarte zerbitzuetara jotzen duten etorkin gehienek euren egonaldiaren lehenengo urtean egiten dute, Gutxieneko Soldata baino diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte eta gehien bat osasuna, hezkuntza edota enpleguari buruzko informazioa edota aholkularitza jasotzeko zuzentzen dira gizarte zerbitzuetara (Torres, 2004). Bide honekin jarraituz, EAEn dauden etorkinen artean ere lehenengo momentu honetan da gizarte zerbitzuetara jotzen den unea, gutxienez Oinarrizko Errenta edota Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzerako momentuan.

## 6. Taula. OE eta GLAko onuradunak eta hauen ailegatze urtea

		Orain jaso	Lehen jaso	Inoiz es jaso	ED/EE
Bi urte baino gutxiago	OE	15,5	7,2	33,7	28,6
	GLL	19,2	6,0	32,3	27,3
	GKE	35,3	27,5	30,4	22,7
Bi eta sei urte bitartean	OE	71,4	79,3	52,4	57,1
	GLL	72,1	79,7	53,6	63,6
	GKE	44,1	60,8	55,8	63,6
Sei urte baino gehiago	OE	13,1	13,5	14,0	14,3
	GLL	8,7	14,3	14,1	9,1
	GKE	20,6	11,8	13,8	13,6
Guztira		100	100	100	100

Iturria: Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia.

Taulan ikusi daitekeenez, OE, GLL edota Gobernu Kanpoko Erakundeek eskaintzen dituzten laguntzak jasotzen dituzten onuradun atzerritarren artean gehienak orain dela bi eta sei urte bitartean ailegatu ziren, OE eta GLL kasuan –askotan biak elkarrekin ematen direlarik-, %70 baino zertxobait gehiago zehazki. GKEetako laguntzetan, urte tarte hau da handiena ere baina beste bi kasuetan baino portzentaje txikiagorekin -%44,1-.

Orain dela bi eta sei urte bitartean ailegatu zirenak inkestatuen %55,8a direla kontutan hartzen badugu, argi ikusi dezakegu portzentaje hori baino gehiago direla OE eta GLLen kasuan eta guxiago GKEen laguntzetan. Hauen atzetik bi urte baino gutxiago daramatenak kokatzen dira, inkestatuen %30,3a izanik OEaren onuradunen %15,5a, GLLen %19,2a eta GKE laguntzen %35,3a dira. Beraz, talde hau azpiordezkatuta agertzen zaigu OE eta GLLko onuradunen artean eta bere pisuaren zertxobait gehiago dira GKE laguntzen kasuan. Azkenik, EAEn sei urte baino gehiago daramatenak %13,9a osatzen dute eta era berean laguntza gutxien eskatzen duten taldea da prestazio guztietan, %13,1a OEren kasuan, %8,7a GLLan eta %20,6a GKE laguntzen kasuan.

Portzentaje guzti hauek lehen esandakoa baino ez dute berresten. Horrelako gizarte prestazioak askotan lehenengo momentuan erabiltzen dira. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu ere horrelako prestazioak eskatzeko gutxienez EAEn urte betez erroladatuta egon behar zarela eta beraz bi urtez baino gutxiago daramatenen artean asko izango direla eskatu ezin dezaketenez. Honek azaldu dezake hein handi batean zergatik talde honek bi eta sei urte daramatzatenak baino portzentaje txikiagoa duen. GLLen kasuan erroldaren baldintza sei hilabetetako izateak prestazio honen onuradunen artean bi urte baino gutxiago daramatenen portzentajea igotzea dakartza, horrela, OEren onuradunen %15,5a diren bitartean GLLrentza %19,2a dira. Ildo berean, erroldak oztopo bezala funtzionatzen duenez, talde honentzat askotan aukera bakarra GKEtara jotzea izaten da, Cáritas-era adibidez. Honen harira, ez da harritzekoa laguntza hau jasotzen dutenen artean bi urte baino gutxiago daramatenak %35,3a izatea.

Jada aipatu denez aurreko zenbait pasarteetan, bi eta sei urte bitartean ailegatu zirenek, hau da, jada migrazio prozesua hasi dutenak eta gizarte zerbitzuen aukera dutenak dira gizarte prestazioen onuradun handienak. Denbora gehien daramatenak, ordea, dira portzentaje txikiena azaltzen dutenak. Azken datu honek erakusten digu, hein handi batean, behin migrazio prozesua martxan jarri ostean, gizarte prestazio eta zerbitzuak gehien bat gizarteratzeko tresna bezala erabiltzen direla lehenengo momentu batean, eta prozesu honetan aurrera egin ahala, gehien bat enpleguaren bidez, gizarte zerbitzuen erabilpena jeitsi egiten dela. Are gehiago, sei urte baino gehiago daramatzaten OEren eskatzaileak -%13,1- eta talde honen pisua inkestan -%13,9- oso antzekoa da. Azken honek denbora pasa ahala etorkinen gizarte prestazioen erabilpena eta bertakoena gero eta gertuago kokatzen direla pentsatzera eraman gaitzake. Beraz, eta datu hauek ikusirik, ez du ematen gehiegizko erabilpenik ematen ari denik (Gaitan, 2005: 11). Era berean, datu hauek erakusten digutenaren arabera, OE edota GLL jasotzen duten etorkinen kronifikazioa eskasa ematen du. Donostiako OEren onuradun atzerritarren datuek ideia hau baieztatu egiten dute eta hauen kronifikazio tasa bertakoena baino txikiagoa dela ere azpimarratzen dute. Horrela, 2007. urtean OEa jasotzen zutenen onuradun atzerritarren %33,8a 2007an ere kobratzen zuten bitartean, portzentaje hau %56,7ra igotzen zen bertakoentzat. Immigrazioaren

etorrera hurrengo urteetan baretzen bada eta ailegatu direnen gizarteratze prozesua gauzatzen bada bi talde hauen ehunekoak gerturatzea ez zen harritzekoa izango, baina guzti hau gaur egun iragarpenen arloan gelditzen da. Bi portzentaje hauen arteko gerturapena emango balitz, nahiz eta hasiera baten kontraesana eman, honek etorkinen normalizazio eta gizarteratze adierazletzat jo genezakeen, lan merkatuak eta abarrek bertakoei sortarazten dizkieten ondorio antzekoak sortarazten badizkiote immigranteei. Dena den, konparazio onargarriak zehazteko oraindik lan asko egin behar da maila teoriko zein analitikoan.

#### **3.4. Gizarte zerbitzuak eta etorkinak: Azkeneko segurtasun sarea ala gizarteratzeako lehenengo tranpolina?**

Aipatu diren elementu guztietatik abiatuta ondorio batetara ailegatu gaitzke: gizarte zerbitzuak gehien bat migrazio prozesuaren lehenengo momentuan erabiltzen dira eta gizarteratzea eman ahala hauen erabilpena gutxitu egiten da. Era berean, eta baieztapen honetan oinarriturik, bertako populazioa eta atzerritarren gizarte zerbitzuen erabilpenean ezberdintasunak somatzen direla ere esan dezakegu.

Testuinguru honetan guretzat oinarritzko galdera bat planteatu behar dugu erabat loturik agertzen zaigularik gizarte zerbitzuek prozesu eta fluxu migratzaileetan duten eraginarekin: Etorkinek gizarte zerbitzuetara zuzentzearen arrazoia prekaritate edo gizarte zaurigarritasun egoeran izatea edota etorkin izaera bera da? Izan ere, etorkina enplegua bilatzera etortzen da, baina hainbatetan bere egoera administratiboa kaskarra dela eta zailtasun handiak izaten ditu lan merkatuan era arautu batean parte hartzeko –Enplegu kontratua eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta-. Honen ondorioz, askotan gelditzen zaien aukerak ekonomia izkutan lan egitea ala egoitza-baimenaren arabera ez dauden zenbait gizarte zerbitzuetara jotzea da. Horrela, gizarteratze prozesu bera arazoak izaten ditu eta printzipio batean beste baldinta batzuetan gizarte zerbitzuetara joko ez luketen pertsonak hauetara zuzentzerako *kondenatuta* gelditzen dira euren prozesu migratzailea eta gizarteratzea martxan jartzeko eta aurrera egin ahal izateko.

Horrela izanik, etorkinen gizarte zerbitzuen erabilera gizarte baliabideen eskasiarekin lotuta baino ailegatze momentuan bizi duten egoerarekin harremanetan jarri beharko genuke. Zentzu honetan, etorkinak talde marginatutzat jotzea ez doa bat benetako errealtatearekin, osasun ona dute –bertakoena baino hobeagoa oro har-, baliabide pertsonal egokiak izaten dituzte eta lan merkatuan parte hartzeko nahia handia eta nabaria erakusten dute. Beraz, gizarte zerbitzuengana gerturatzen diren beste taldeekin konparatuz, ezberdintasun nabariak adierazten dituzte (Cuadros, 2005: 61).

Azken hau elementu garrantzitsua da. Izan ere, gizarte zerbitzuetara jotzen duen bertako eta atzerritar populazioak konparatzen baditugu ezberdintasun nabariak aurkituko ditugu. Bertakoentzat gizarte zerbitzuek gizarte bazterkeria ekiditeko *gizarte-babeseko azken sare* bezala funtzionatzen duten bitartean; atzerritarrentzat, aldiz, integrazioa ahalbidetzeko *gizarteratzeako lehenengo tranpolin* baten antza hartzen dute. Era berean, bertakoentzat beranzkorra den ibilbide baten aurrean, atzerritarrena goranzkorra izaten da gehienetan.



#### 4. BUKATZEKO ETA LABURBILDUZ...

Azken urte hauetan etorkinen gizarte zerbitzuen erabilpena gero eta handiagoa da, gehien bat oinarrizko gizarte zerbitzuei buruz hitz egiten dugunean. Hala ere, aurreko baieztapenetik ezin dugu ondoriozta gizarte zerbitzuen sarea hauen esku geratu denik. Era honetan, nahiz eta bertako populazioak baino pisu gehiago erakutsi, etorkinen portzentajeak ez dira oso altuak eta zenbait arloetan gainera euren pisua baino txikiagoa da oraindik.

Hau esan ondoren, etorkinek askotan beste kolektibo batzuk gizarte zaurigarritasunean erortzeko baino arrisku gehiago dutela ere aipatu behar da. Horregatik, ez da harrizkeoa ere, euren pisua bertakoena baino handiagoa izatea gizarte zerbitzuen barruan. Gainera ezin dugu ahaztu oinarrizko gizarte zerbitzuen lana askotan atzeritartasun legislazioak azaltzen dituen mugak eta gabeziak osatzea izaten dela (SIIS, 2007: 133). Egoitza-baimena lortzeko beharrezkoa den gizarte-errotze agiria, adibidez, gizarte zerbitzuek egiten dute, aipatutakoaren adibide nabaria delarik. Kasu honetan, zehazki, etorkinek gizarte zerbitzuetara jotzen dute euren egoera administrazioagatik, baina ez inondik inora, gizarte behar edo gabezi jakinak dituztelako.

Hau guztia esan ondoren, eta jakinik honen inguruan ematen diren ideei asko sinismenen arloan kokatzen direla eta ez errealitatearenean. Nahiz eta kritika hauek ezin diren alde batera utzi, kontutan hartu behar dira eta kontutan hartu behar da ere bertako populazioaren zenbait taldeentzat etorkinak definizioz mugatuak eta amaitu daitezkeen gizarte baliabideen lehiakide handienak direla, honek sortarazi ditzazkeen gatazka eta arazo guztiek.

Hauxe izan daiteke, hain zuzen ere, gizarte zaurigarritasunean edota prekarizazioan kokatzen diren bertakoen hainbat taldeen egoera eta iritzia. Datuen bat ematearren, pobreak edota baztertuta dauden familien ia erdiak -%49a- noizbait jo du gizarte zerbitzuetara (Rodríguez Cabrero, 2003: 275) eta hauengana jotzen dutenean etorkinak ikusten badituzte, askotan jarrera lehiakorrak sortu daitezke. Dena den, hau ez da berria eta ijituekin askotan gertatutako fenomeno da ere. Honen inguruan, Ikuspegik egindako Barometro ezberdinetan joera hauek oso argi azaldu zaizkigu. Horrela bada, diru-sarrera txikiak eta prekarizazio maila gehien duten bertako pertsonak dira etorkinen kontrako diskurtso gogor eta kontrakoan dituztenak eta etorkinek bertakoak bezainbeste gizarte zerbitzu kobertura edukitzearen alde gutxien direnak.

Horrelako tentsioak gehienetan etorkinen pisu nahiko handia eta gizarte zerbitzuen erabilpena egiten duten eremu geografikoetan emango da. Gizarte zaurigarritasunean kokatzen diren bertako kolektibo hauentzat etorkinek sortaraziko *arriku* hau akaso ez da hain fiktizioa eta etorkizunera begira oso interesgarria suerta daiteke gizarte zerbitzuen alor honetan emango diren dinamika ezberdinak eta ea benetan etorkinek bertakoak ordezkatu egiten duten ala ez aztertzea. Izan ere, gaur egun jada, horrelako mugimenduak ematen ari dira zenbait baliabideetan, etxerik gabeko pertsonen artean esaterako. Hala ere, ideei eta baieztapen honetan gehiago sakondu beharra egongo litzateke.

Hau esan ondoren, ez zen batere egokia izango gizarte zerbitzuen hainbat gabezien arrazoia etorkinen erabilpenean datzala pentsatzea. Immigrazioak agerian utzi ditu jada gizarte zerbitzuetan somatzen ari ziren hainbat hutsune eta etorkinak etorri

baino lehen bertakoek pairatzen zituztenak. Are gehiago, eta gizarte zerbitzuetak sare publikoarekin zuzenki lotuta ez badago ere, apunte modura ezin aipatu gabe utzi etorkinak gizarte zerbitzuen erabiltzaileak baino eskaintzaileak direla nagusiki, dependentziari loturiko zaintza pertsonaletan, adibidez, errealtate hau ezin hobeto ikus dezakegu. Era berean, eta jada aipatu dugun bezala, fiskalitateari dagokionez ere hau oso garbi ikusi daiteke.

Laburbilduz, lan honetan zehar immigrazioa eta gizarte zerbitzuen inguruko hainbat datu eta gogoeta plazaratu dira. Bi kontzeptu hauen inguruko eztabaida gaur egun pil-pilean dago, are gehiago gizarte zerbitzuak birplanteatzen ari diren garai hauetan (Fantova, 2008). Testuinguru honetan, hain zuzen ere, ematen ari diren hausnarketan immigrazioa aldagaia barneratzea interesgarria bezain ezinbestekoa izan daiteke. Honen bidez, hobeto ezagutu ahal izateko hauetan sartzeko edota erabilpenean bertako eta etorkin populazioaren arteko ezberdintasunak eta antzerakotasunak zeintzuk diren. Beti ere, hiritartasunaren gizarteratzea hobetzea eta sustatzea irizpide nagusia izan behar dela kontutan izanik, bai populazio atzerritarra zein bertakoena.

Halaber, eta etorkizuneko eztabaidei begira, hainbat galdera eta zalantza agertzen zaizkigu: Noraino balio dute gaur egun gizarte zerbitzuetan erabiltzen diren balorazio edota ebaluazio irizpideak populazio atzerritarra eta bertakoen azterketa egiteko? Berdinak izatea egokia al da? Lanean ikusi den bezala, hain ezberdinak diren dinamikak jarraitu ostean, aldagai berdinak erabili al daitezke gizarte zerbitzuen balorazioa egiteko populazio bat zein bestearentzako? Adibide bat jartzearen, kronizitate-indizeak informazioa eskaintzen digu bertako populazioarentzat. Baina zer esaten digu populazio atzerritarrari aplikatzen bazaio? Indize honek zer esaten digu kolektibo bakoitzarekiko? Denbora pasa ahala, batzuk eta besteen artean orain hain ezberdinak diren tendentziak gerturatuko al dira? Ikusten dugun bezala, hainbat kuestio eta gai oraindik erantzuteke daude eta hausnarketa eta gogoeta sakona eta lasaia eskatzen dute. Era berean, gai guzti hauei lotuta asko dira agertzen zaizkigun eztabaidak. Laburbilduz, populazio etorkinarentzat gizarte zerbitzuen esanahia eta erabileraren zer eta *nola* birpentsatu beharko genukeela uste dugu. Horrela, gizarte zerbitzuen helburua diren gizarteratzea eta integrazioa era egoki eta osoan kunpli daitezten talde jakin honentzat.

Dinamika guzti hauetan krisiaren eragina aztertzea ezinbestekoa da lan honetan planteatzen diren hipotesien baliogarrtasuna frogatu, kontrastatu eta hauetan sakondu ahal izateko. Momentu hauetan datu gehiegirik ez ditugun arren, etorkinekin lan egiten duten eragile gehienek iritzia kolektibo honen beharrak handitu baino ez direla da, zentzu honetan gizarte gaietaz arduratzen diren elkarte ezberdinek behin baino gehiagotan azpimarratzen dute euren erabiltzaileen kopurua etengabe hazi egin dela azken hilabeteotan.

Era berean, eta etorkinei lotuta, krisiak ondorio latzak izan ditzazke ere kolektibo honen gizarteratzeari dagokionez, orain arte integrazioaren bide goranzkorra nahiko automatikoa izan bada ere ikusteke dago garai hauetakoa egoerak zer nolako eragina duen eta prozesu honetan ondorio ezkorrik izan dezakeen ala ez.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- BERGHMAN, J. (1995): "Social exclusion in Europe: policy context and analytical framework" en Room, G. (ed.) *Beyond the threshold*. University of Bristol: The Policy Press.
- CASADO, D. eta beste batzuk (2005): Situación y perspectivas del sistema público de servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dossier para el debate, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, en [www.fantova.net](http://www.fantova.net)
- CEA D'ANCONA, M.A. (2007): *Inmigración, racismo y xenofobia en la España del nuevo contexto europeo*, Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia, Madrid.
- ; VALLES, M.S. (2008): *Evolución del racismo y la xenofobia en España. Informe 2008*, Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia, Mdrid.
- ; —. (2009): *Evolución del racismo y la xenofobia en España. Informe 2009*, Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia, Madrid.
- ; —. (2010): *Evolución del racismo y la xenofobia en España. Informe 2010*, Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia, Madrid.
- CUADROS, A. (2005): "Red de recursos sociales en el ámbito de la inmigración", APARICIO, R. eta RODRÍGUEZ, J.L. (Ed.): *La intervención social en colectivos inmigrantes*, Universidad Pontificia de Comillas, Madrid.
- DALY, M.; SILVER, H. (2008): "Social exclusion and social capital: a comparison and critique", en *Theory and Society*, nº37, pp. 537-566.
- EAPN (2008): "La inmigración en la UE" en *Noticias de la red*, 127. zenb., uztailak-irailak, en [www.eapn.es](http://www.eapn.es)
- EUSKO JAURLARITZA (2007): *Estadística de demanda de servicios sociales*, Eusko Jaurlaritza, [www.juslan.ejgv.euskadi.net/r4519077/es/contenidos/informe\\_estudio/demanda\\_2006/es\\_demanda/djuntos/Informe%20provisional\\_sep%202007\\_correcciones.doc](http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r4519077/es/contenidos/informe_estudio/demanda_2006/es_demanda/djuntos/Informe%20provisional_sep%202007_correcciones.doc)
- (2008): *El impacto económico de la inmigración extracomunitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- (2008b): *Estudio de las personas perceptoras de Renta Básica*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- FANTOVA, F. (2008): *Sistemas públicos de servicios sociales. Nuevos derechos, nuevas respuestas*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- GAITAN, L. (2005): "El marco institucional para la intervención social", APARICIO, R. eta RODRÍGUEZ, J.L. (Ed.): *La intervención social en colectivos inmigrantes*, Universidad Pontificia de Comillas, Madrid.
- GIMÉNEZ, C. (2002): "Estado de Bienestar y migraciones internacionales: Cuestiones, debates y tendencias", en CLAVIJO, C. y AGUIRRE, M. (Ed.): *Políticas sociales y Estado de Bienestar en España: las migraciones*, Fundación Hogar del Empleado, Madrid.
- GIZARTE GAI ETA LAN MINISTERITZA (2007): *Informe sobre la situación de la integración social de los inmigrantes y refugiados en 2007*, [www.mtin.es/es/migraciones/Integración/Foro/docs/Informe-situacion-integracion-inmigrantes2007.pdf](http://www.mtin.es/es/migraciones/Integración/Foro/docs/Informe-situacion-integracion-inmigrantes2007.pdf)
- IKUSPEGI (2008): *Barómetro 2008. Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*, Ikuspegi-Observatorio Vasco de Inmigración, Bilbao.
- (2009): *Barómetro 2009. Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*, Ikuspegi-Observatorio Vasco de Inmigración, Bilbao.
- (2011): *Barómetro 2010. Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera*, Ikuspegi-Observatorio Vasco de Inmigración, Bilbao.

- LAPARRA, M. (2003) (Ed.): *Extranjeros en el purgatorio. Integración social de los inmigrantes en el espacio local*, Bellaterra, Barcelona.
- . (2008): “Las políticas de integración social de inmigrantes en España”, EE.EE.: *VI. Informe sobre exclusión y desarrollo social en España. 2008*, Fundación Foessa, Madrid.
- . AGUILAR, M. (1997): “Intervención social y exclusión social”, VV.AA: *Políticas sociales contra la exclusión social* (Simposioko Aktak, Madrid, ekainak 5-7), Cáritas, Madrid.
- . beste batzuk (2007): “Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas”, *Revista Española del Tercer Sector*, nº 5, urtarrilak-apirilak, 15-57orr.
- LEVOY, M. (2008): “¿Qué desafíos y políticas plantea la cuestión de los derechos sociales de los inmigrantes ilegales”, *Noticias de la red*, 127. zenb., uztailak-irailak, en [www.eapn.es](http://www.eapn.es)
- MALGESINI, G. (2008): “Inmigración y economía”, COLECTIVO IOÉ: *Inmigrantes, nuevos ciudadanos. ¿Hacia una España plural e intercultural*, Fundación de las Cajas de Ahorros, Madrid.
- MONTAGUD, X.; TORRES, F. (2002): “Inmigración y servicios sociales. Entre el estereotipo y la realidad”, *Cuadernos electrónicos de filosofía del derecho*, 6. zenb., en [www.uv.es/CEFD/6/montagud.doc](http://www.uv.es/CEFD/6/montagud.doc)
- MORENO, L. (2000): *Ciudadanos precarios. La última red de protección social*, Ariel, Barcelona.
- OFICINA ECONÓMICA DEL PRESIDENTE (2006): *Inmigración y economía española, 1996-2006*, Oficina Económica del Presidente, en [www.la-moncloa.es/NR/rdonlyres/OAOCB2F0-97AB-4F7D-8915-136A678022AE/78630/INMIGRACIONYECONOMIAESPA%C3%91OLA15noviembre.pdf](http://www.la-moncloa.es/NR/rdonlyres/OAOCB2F0-97AB-4F7D-8915-136A678022AE/78630/INMIGRACIONYECONOMIAESPA%C3%91OLA15noviembre.pdf)
- PAJARES, M. (2005): *La integración ciudadana. Una perspectiva para la inmigración*, Icaria, Barcelona.
- PÉREZ YRUELA, M.; RINKEN, S. (2005): *La integración de los inmigrantes en la sociedad andaluza*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- RINKEN, S.; PÉREZ YRUELA, M. (2007): *Opiniones y actitudes de la población andaluza ante la inmigración*, Junta de Andalucía, Sevilla.
- . SILVA, M.; VELASCO, S.; ESCOBAR, M<sup>a</sup>.S. (2009): *Opiniones y actitudes de los andaluces ante la inmigración (II): entre la estabilidad y el cambio*, Junta de Andalucía, Sevilla.
- RINKEN, S.; ESCOBAR, M<sup>a</sup>. S.; VELASCO, S. (2011): *Opiniones y actitudes de la población andaluza ante la inmigración (III): más allá del discurso funcionalista*, Junta de Andalucía, Sevilla.
- RODRÍGUEZ CABRERO, G. (2003): “Protección social de los inmigrantes extranjeros”, IZQUIERDO, A. (Zuz.): *Inmigración: Mercado de trabajo y protección social en España*, Consejo Económico y Social (CES), Madrid.
- SIROVÁTKA, T.; MARES, P. (2008): “Social exclusion and forms of social capital: Czech evidence on mutual links” en *Czech Sociological Review*, vol. 44, nº3, pp. 531-555.
- SIIS (2007): “Dependencia y demanda de servicios sociales en Euskadi: una lectura a partir de la Estadística de Demanda de Servicios Sociales”, *Zerbitzuan*, 42. zenb., abenduak, 115-137. orr.
- SUBIRATS, J. eta beste batzuk (2004): “Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea”, *Colección Estudios Sociales*. Nº 16. Fundación La Caixa.
- TORRES, F. (2004): “La inmigración en la Comunidad Valenciana. Proceso de inserción”, *Jornadas Análisis y propuestas sobre políticas de inclusión* (2003. urteko otsailak 26 eta 27), Cáritas, Valencia, 115-155 orr.